

# Arraunketa tradizionalako kirolarien gogobetetzea eta honek entrenatzailearen lidertzarekin duen harremana

**Patxi León Guereño<sup>1</sup>**

<sup>1</sup> Deustoko Unibertsitateko Irakasle eta Ikertzailea.

**Emaila:** [patxi.leon@deusto.es](mailto:patxi.leon@deusto.es)

## **Sarrera:**

Euskal Arraunketa tradizionalan alderdi fisiko-fisiologikoa, nutrizionala, teknikoa eta biomekanikoa aztertu izan da, gutxi dira ordea, arraunlari hauen ongi izate psikologikoa aztertu dutenak. Gainera, kontutan hartzen badugu talde kirol batek harreman mailan duen konplexutasuna, arraunketan ere, egunerokoan ematen diren elkar ekintzek eta bizipenek kirolarien gogobetetzean eragina izango dute. Entrenatzailearen eginkizunak bere biziko garrantzia dauka. Hau dela eta, arraunlariak beren entrenatzaileen lidertzarekiko duten gogobetetzea aztertzea interesgarria da.

## **Helburuak:**

Arraunlariak beren entrenatzailearen jokabideekiko duten gogobetetzea aztertzea eta honen inguruko hausnarketa.

## **Metodoak:**

Ikerketa honetarako erabili den lagina, ACT mailako 4 taldean jasotako datuek osatzen dute, guztira 66 kirolari eta 4 entrenatzaile. Lagin honek goi maila osatzen duten taldeen %33 irudikatzen du.

Datu bilketa burutzeko erabili ziren tresnak bi izan ziren:

The Leadership Scale for Sport – LSS- *Kirolerako lidertza eskala* (Chelladurai & Saleh, 1980) eta Athletic Satisfaction Questionnaire – ASQ- Kirolarien gogobetetze galdeketa (Riemer & Chelladurai, 1998) eskalen gaztelerara burututako berrikuste, itzulpen, egokitzapen eta balioztatzea.

Datu bilketa denboraldi amaieran burutu zen lau traineruen kasuan, eta horretarako arraun elkarte bakoitzetik pasatu ginen.

## **Emaidzak:**

- 1) Arraunlariak orokorrean gogobetetze baxuena entrenatzaileen jokabideak biltzen dituen dimentsioekin dutela ikusi ahal izan dugu (Anova,  $P \leq 0,05$ ).
- 2) Entrenatzaileen lidertza eta kirolarien entrenatzaileekiko gogobetetzearen artean korrelazio positiboa azaltzen zaigu (korrelazioa,  $r \geq 0,25$ ).
- 3) Talde desberdinen gogobetetzea konparatzerakoan, entrenatzaileari dagozkion bi dimentsioetan desberdintasun esanguratsuak aurki ditzakegu (Anova,  $P \leq 0,05$ ).

### **Ondorioak:**

Arraunlariak orokorrean ez daude gustura beren entrenatzaileek erakusten dituzten jokabideekin.

### **Bibliografia:**

Chelladurai, P. (1978). *A contingency model of leadership in athletics* (Tesis doctoral). University of Waterloo, Waterloo, ON, Canada.

Chelladurai, P. & Saleh, S.D. (1980). Dimensions of leader behaviour in sports: Development of a leadership scale. *Journal of Sport Psychology*, 2, 34-45.

Kellmann, M., Bussmann, G., Anders, D. & Schulte, S. (2006). Psychological aspects of Rowing. En J. Dosil (Eds.), *The Sport Psychologist's Handbook: A Guide for Sport-Specific Performance Enhancement* (pp. 479-501). London, UK: John Wiley & Sons.

Riemer, H.A. & Chelladurai, P. (1998). Development of the athlete satisfaction questionnaire. *Journal of Sport and Exercise Psychology*, 20(2), 127-156.

Schulte, S. (2004). Psychologie im Ruderachter [Psychology in the rowing eight]. *Leistungssport*, 34(4), 67-70.

Sánchez Bañuelos, F. (1996). Traducción al castellano, validación, adaptación y revisión del cuestionario de Chelladurai y Saleh de la escala de liderazgo para deportes (LSS, Leadership Scale for Sports). *INFOCOES*, 1(2), 3-16.